

Aretxagazeta



Agur, herriko parrokoari

ANTONIO ASTIGARRAGA,
azkoitiarrak
sei urte egin ditu
gure artean.
Orain Bartzelonara
doa Liturgia
ikasketak egitera.

ETA GAINERA...

Ze barri?

SAN PEDROAK
Herriarren eta
elkarteen balorazioa /8

KIROLA
Herriko pilotariak
lan bikaina /9

LEINTZ GATZAGA
Udalak loreak eta
landareak doan /10

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 13
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

DOMEKA, 14
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK	
Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 79 74 58
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Saretxo	943 71 26 56
Taxi geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALTZAINGOA
Arrasate

LARRIALDIK
SOS Deiak

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Oharra: Hiletetan 19:00etan izango dira mezak parrokian.

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN: AOZARATZA
Zapatuetan: 19:00

MENDIOLA
Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

GELLAO/GALARTZA/IZURIETA
Ez da mezarik esango

OHARRAK

XIBEROA GARATZEN 2010 EGITASMOKO ZOZKETAN 701 ZENBAKIA IZAN DA SARITUA!
Zuberoari laguntzeko kanpainaren barruan, aterpetxe baten bi lagunendako egonaldia zozketatu dute. Joan den astean egin zuten zozketa, eta zenbaki saritua 701 izan da. Zenbaki hori duenak dei dezala lehenbailehen 943 77 09 70 telefonora (Larraitz).

EPEH PLATAFORMAKO KALE BILKURA
Gaur, egubakoitza, 19:00etan, Euskal Presoak Euskal Herrira Plataformak kale agerraldia egingo du. *Gaixo sendagaitzak dituzten presoak etxera!* lelopean batuko dira.

AKORDEOI ORKESTRAREN HAMARGARREN URTEURRENEKO OSPAKIZUNAK
Akordeoi Orkestrak 10. urteurrena bete duela ospatzeko, Aretxabaletako Akordeoi Orkestrak Edorta Aiastui tronpetat jotzailearekin batera eta Iñigo Azpiolea akordeoilariak kontzertua eskainiko dute elizan. Ospakizunak uztailaren 20an amaituko dira, Euskal Herriko Gazte Orkestra Sinfonikoak egingo duen kontzertuarekin. Kontzertu horretarako sarrerak salgai daude dagoeneko Taberna Berrin, Arlutzen eta Iosun.

LORAMENDIRENAGENDA

SAN MIGEL JAIETARAKO DANTZA IKASTEKO ENTSEGUAK IRAILEAN HASIKO DIRA
Loramendi euskara elkar-teak San Migel festetako *Beinke-Loramendi* dantza ikasteko entseguak antolatatu ditu. Entseguak irailean egingo dituzte, egubakoitzero, 19:30ean. Jendearen parte hartzea garrantzitsua da; hortaz, anima zaitzete! Informazio gehiago, betiko moduan, 943 77 09 70 telefonon.

ORAINDELA 8URTEARETXABALETAN

Akaitz Garaik zazpinako futbol torneoa jokatu zuen


1995. urtean, Akaitz Garai aretxabaletarrak Canal+ telebista kateak antolatutako Futbol 7 txapelketan hartu zuen parte, 12 urterekin. Akaitzek Gipuzkoatik sailkatutako beste jokalariz gazte batzuekin batera jokatu zuen. Gainera, urte hartan txapelketa irabazi zuten.



BERTAKOBERBAK/ Juan Mari Elexpuru

“Galosua”

Dotorea, kolore eta itxura onekoa.
- Erropia oso maixa, maiza zeukan arek.
Eskaxa zeukala. Zarra ero, beintzet ez galoso galosua.



ZORIONAGURRAK



ARETXABALETA
Ainhoa Garro
Ekainaren 28an, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat laguneren partetik.



ARETXABALETA
Amaia Zubia
9an. Zorionak eta muxu handi bat etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Itxaro Zubillaga
12an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Endika Azkargorta
12an, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA
Larraitz Iñurrategi
15ean. Zorionak eta muxu handi bat, Larraitz. Zatoz Iruñera ospatzera!



ARETXABALETA
Asier Dacosta
16an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat, Boliñako guztien partetik.



ESKORIATZA
Aitor Villar
16an, 16 urte. Zorionak eta muxu handi bat, ama-pontekoaren partetik.



ARETXABALETA
Eli Barandiaran
16an. Zorionak, eta muxu handi bat, koadrilako laguneren partetik.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak ARETXAGAZETAren bidez!
Ekar itzazu haien argazkiak eta emaezu ezusteko ederra! **Doan!**
Durana 11.

MIRVAT

Kalitate goreneko estalketa elektrolitikoak

MIRVAT. Elkarte kooperatibo mugatua
Aingeru ibiltokia 41
ESKORIATZA
943 71 45 06 Faxa: 943 71 50 05



ATREBENTZIAEZPADA/ Durana kalien jarri dauen pibotiek ondo pentsetan jatzu?




ARANTXA IZURA
Langillie

Bai, oso ondo. Lehen, kotxe asko egoten zien, eta kalie oin polittago dago kotxe barik, bueno, gutxiagokin. Geruago eta aparkaleku gutxiago dago, baiñe ondiokan topau leikela uste dot.




JOSU ZALOÑA
Langillie

Ondo. Jentiek kalien kotxe artetik pasetako problemak baeuken, ondo pentsetan jat holako neurrixe hartzie. Kalie zatar geratu dan edo ez norberaren kontue dala uste dot.




LEONOR HERRERO
Langillie

Ez dot uste ezertarako bali-xo izen dauenik pibotioik. Kotxiek lehengo moduen aparketan daue, lehen albo batera eta oin bata bestien atzian, eta okerrago dala uste dot.




SATURNINO SÁNCHEZ
Jubilaue

Ondo. Oiñezkuok larri ibiltten gitzen kotxe artetik pasetako. Oin, behintzet, leku gehixago daukogu eta trankillago pasauko gara. Dana dala, kotxiek aparke-tan jarraiketan daue.



LUTXI GARCÍA
Langillie


Ondo, kalien kotxe gutxiago egoteko bada. Hala be, lehengo antzera aparketan dauela uste dot. Estetikari begiretute ondo ikusten dot kalie, baiñe ez dakit askorik balixo dauen.



JUAN CARLOS PÉREZ
Langillie

Ez dakit zertarako dien be... Kalien ez aparketako, ez? Kotxe danek errespetetan badittue ondo pentsetan jat, baiñe ikusi egin biher. Egixe esan, aparkaleku arazue daukogu herrixen.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK EUSKARAZ BAI, BAINA ZUZEN Poztekoa da (ohikoa izan beharko litzateke) herriko enpresek euskaraz jartzea kartelak, baina gaztelaniazko itzulpenak ezin dira edozein modutan egin. Ez dakigula euskaraz? Herrian Loramendi izeneko elkarte dago, Merkataritza Saila dauka, eta euskaraz idazteko orduan merkatariek dituzten zalantzak pozik asko argitzen dituzte. /M.A.

ETABARRUAN...

ELKARRIZKETA /4

ASTEAN BEHIN /5

KIROLAK /7

Antonio Astigarraga

Antonio Astigarragag agur esango digu, eta irailean beste parroko bat izango dugu.

Pausokak egoitza berria

Pausoka Haur Eskolak Belorrietan auzoan izango du egoitza berria datorren ikasturtean.

UDA entrenatzen hasi da

UDAko futbol taldeak hasi dira entrenamendu lanetan. Preferentiek entrenatzaile berria du.

ASTEKODATUA

50

ZUTABE EDO PIBOTE JARRI DITUZTE DURANA KALEAN

Lehen, harrizko zutabeak zeuden Durana kalean; orain, beste 50 jarri dituzte, txikiagoak, 25 zentimetrokoak, berdeak. Zutabeen egitekoa da automobilei aparkatzen ez uztea.

BESTEKEESANA


Behar bada beste batzuek ere merezi izango zuten "made in Euskadi" saria baina epai-mahaikoek

pentzatu zuten merezi genuela, batez ere, bertan egindako produktua munduan zehar zabaltzeko gai izan garelako. Gure produktu izarra CNCa da, kontrol numerikoa, beste batzuen artean. Estatu mailan CNC ekoizle bakarrak gaila uste dut, besteak atzerritarren banatzaileak dira-eta. Makina eta prozesu industrial guztien automatizazioa eta kontrolarekin zerikusia duten produktu oro egiten dugu.

Momentu honetan ia 550 langile gara Fagor Automationen. Arrasate eta Usurbilen 410 inguru, eta munduan zehar beste 130 pertsona daukagu: 50 inguru European, 40 Amerikan eta beste 40 Asian.

AITOR IRURE
'Ekilan' GOITB/02-07-03

HERRITARRENBERBAK/ Edorta Mendieta



Lanerako prest?

Aretxabaleta herri dinamikoa izan da beti eta dinamismo horren erreflexu dira herrian ditugun elkarteak. Batzuen zer-egina besteena baino nabarmenagoa edo ezagunagoa da, baina bakoitzak bere lan esparruan rol garrantzitsua jokatu du herriaren bizitzan. Elkarteak herriko dinamikaren ezinbesteko aktoreak ditugu eta hauek herriaren taupada islatzen dute.

Elkarteak gure bizitzaren parte dira. Eurek bultzatuta asko dira herriaren bizitzaren parte dira. Eurek bultzatuta asko dira herriaren bizitzaren parte dira. Eurek bultzatuta asko dira herriaren bizitzaren parte dira.

UDA, Abesbatza, Loramendi, Murruxiko, Saretxo, ARETXAGAZETA, Xake Taldea, Dantza Taldea, Pilota Taldea... Elkarteak herrian eta herri-ekintza jaiok dira. Momenturen baten

egonezin baten eraginez edo interes komun batek bultzatuta elkartutako zenbait lagun edo ezagunen ekimenaz jaiok dira. Urteak joan eta urteak etorri, herritar ugari pasatu da elkarte hauetatik, hasierako testigua hartu eta merezitako erreleboa emanaz.

"Elkarteak gure bizitzaren parte dira. Eurek bultzatuta asko dira herriaren bizitzaren parte dira. Eurek bultzatuta asko dira herriaren bizitzaren parte dira."

Elkarteak herriaren eta herri-ekintza jaiok dira, eta horregatik euren etorkizuna herriaren bizitzan dago. Elkarteak, sortu zirenetik hona, hainbat etapa bizi izan dituzte eta garai berriei aurre egiteko jende berria behar dute, ideia eta gogo berrituak ekarriko dituztenak. Baina gizartea aldatuz doala dirudi eta herriaren probetxurako zerbait egin izanak ematen duen poza ez omen da nahikoa erreklamo. Horregatik, gero eta zailagoa da elkarteetako batzordeei erreleboa nork hartu aurkitzea. Hau ote elkarte lanaren kantzerra eta elkarteen bukaeraren hasiera?

Lanerako prest bazaude, jakin aukerarik baduzula. Be-soak zabalik hartuko zaituzte.

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Goio Arana

PUBLIZITATEA
Ziortza Martín

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
4.100 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Joan eta etorri

Abade kontuekin hasiera noa gaurkoan. Honezkerok jakingo duzue, Antonio Astigarraga parrokoa badoa gure herritik. Irailean agurtuko dugu, Bartzelonara ikastera doa-eta. Aukera izanez gero, behintzat, ez dago gaizki horrelako aldaketak egitea. Erabakiak hartzea gogorra izaten da, baina hartu egin behar izaten dira. Antoniok agur esango digu; dena dela, herri ingurura etorriko den beste abade bat ere badugu. Jakin dudanez, **Jon Molina** Arrasateko San Andres auzora dator. Batzuk urrundu eta beste batzuk urreratu. Dena dela, gure herrirako oraindik ez dago hauta-gairik.

Abade kontuak alde batera utzita, Andramai-xetako kartel iragarleak badu dagoeneko bere irabazlea, **Yera Sanchez** hain zuzen. Lehenago ere irabazi izan du Yerak sari hau, baina beste lagun batzuekin batera.

Jaiekin jarraituz aurten ez dugu **Portasol** auzoko jairik izango. Pena da, baina jendea aspertuta dago jaiak antolatzear. Eskerrak auzoetako oraindik egiten diren. Larrino auzoan astean ospatu dituzte **San Kristobal jaiak** eta koruetarrek hil bukaeran ospatuko dituzte Santia-goak. Zuek ez etsi, eta jarraitu horrela auzoetako jaiak antolatzen.

ELKARRIZKETA

ANTONIO ASTIGARRAGA/ARETXABALETAKO PARROKOA

“Nik bakarrik ez dut ezer egin; pertsonen arteko sintonia egon da, lankidetzan”

MIRARI ALTUBE

Antonio Astigarraga azkoitiarra Aretxabaletako parrokoa izan da sei urtean. Abuztuan oporrak hartuko ditu, eta irailean herritarroi agur esatera eta abade berriari ongietorria ematera etorriko da; gero, Bartzelonara joango da.

Gotzainaren agindua izan da?

Nik Aretxabaletatik alde egiteko arrazoi bi daude: batetik, ni ez naiz leku berean denbora luzean egotekoa. Nire ustez, norberak duena eskaintzeko epe bat dago eta hori pasatu eta gero ezer gutxi eman daiteke, eta ez zait errepikatzerik gustatzen. Bestetik, gotzainak eta bikarioek niretako zeregin bat bazegoela pentsatu zuten. Laster Donostiako Elizbarrutian zerbitzu bat hutsik geratuko da eta hori beteko dut ikasketak egin ostean.

Sei urtean gauza asko egin dituzu herrian: auzoetako elizak konpondu, parrokiak berri, parrokiako proiektua abian jarri... Zerk harrotzen zaitu gehien?

Bai, egia da sei urteak trinkoak izan direla. Ni ez naiz jendearekiko hurbila, badakit, baina hala ere, garrantzitsuena izan da lan horiek guztiak egiteko pertsonak elkartu egin direla. Nik bakarrik ez dut ezer egin, pertsonen arteko sintonia egon da, eta horrek lankidetzan eragin du. Eliza elkarte batek etorkizuna izango du pertsonen arteko sintonia baldin badago, bestela ez. Egia da iritzi asko egon direla, eta gai batzuetan irizpiderik ere ez zegoela, baina azkenean sintonia nagusitu da.

Parrokiako proiektua egin eta abian jarri da. Aldaketa asko ekarri ditu?

Proiektuak berak baino gehiago, elizaren etorkizunak ekarriko ditu aldaketok. Askok izango dira; izan ere, lehen ez zen pentsatu ere egiten meza emateko edo



MIRARI ALTUBE

“Norberak duena eskaintzeko epe bat dago eta hori pasatuta ezer gutxi eman daiteke”

gaixoei oliodura emateko abaderik falta izango zenik, baina etorriko da hori ere. Abadeek ematen dituzten zerbitzu asko beste batzuek eman beharko dituzte. Egoerak berak aldaketak ekarriko ditu eta aldaketa horiek lehenengo mina edo haustura sortuko dute, baina zauriak sendatu eta normaltzat hartuko dira.

“Herri honetan eta guztietan abade askea behar da, baina ebanjelioaren zerbitzaria ere”

Non egin duzu gustura lan?
Ospakizunak prestatzen asko disfrutatu dut, penitentzia ospakizunak, otoitzaldiak, umeen mezak... Batetik, aske sentitu naiz, lotura barik, eta bestetik, imajinazioa erabiltzeko aukera izan dut. Domeketako eukaristian, esaterako, ezin dut hori egin, oso eskema finkoa duelako.

Zure ustez, laikoek presentzia handiagoa izan behar dute gure parrokiari?

Beharrak ekarriko du laikoek presentzia handiagoa, baina beharbada, ez litzateke horrela izan beharko. Laikoek elizan euren lekua dutela uste dut eta abadeok kendu egin diegu, entzule xume bihurtuaz. Horrenbeste gizaldiren ostean, laikoek lekua zein den zehaztea abadeo ere kostatu egiten zaigu, baina poliki-poliki agertuko da. Hala ere, apaizok zahartuaz goaz, baina laikoak ere bai.

Hasieran Madrilera zindoazela esan zen, orain Bartzelonara. Zer dela eta aldaketa?

Hasieratik nituen bi aukerak Liturgia ikasketak bietan egin daitezkeelako. Madrilera joatea pentsatu nuen klausurako bizi-modua egin gura nuelako ikasketak egin bitartean. Gero, ordea, Bartzelonako fakultatea hobeto gertatuta zegoela esan zidaten eta Kataluniako eliza Euskal Herrikoarengandik hurbilago ere badago; hortaz, Bartzelonara joatea erabaki dut.

Irailean itzuliko zara?

Bai. Abuztuan oporrak hartuko ditut, baina irailean bueltatuko naiz, egun batzuetan Bartzelonara joan arren. Abade berriari itxaron gurako nioke ongietorria emateko, baina izendapena asko atzeratzen bada, ez dakit ahal izango dudana. Herritarrekin ere agur bazkaria egin gurako nuke, ahal balitz parroko berriarekin, baina gotzainak ez dut uste oraindik inor aukeratu duenik; ez dakit noiz izango den.

Zelako abadea behar dugu herrian?

Nork bere ikuspuntuaren arabera gura du abadea, eta sarritan ez dizute uzten zu zaren bezalako izaten. Herri honetan eta guztietan abade askea behar da, eta askea izateaz gain, ebanjelioaren zerbitzari izan dadila, ez beste inoren zerbitzari.



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa, F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETAKO
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAKO

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETAKO
Tel: 943 79 01 28

Aretz

taberna

Markole, 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETAKO

HEZKUNTZA/ Egoitza berriak 1.004 dekretuak eskatutako baldintza guztiak betetzen ditu

Egoitza berriak hasiko du ikasturtea Pausokak

MIRARI ALTUBE

Pausoka Haur Eskolak Otolara kalean dagoen kuartelean du egoitza. Baina irailetik aurrera Belorrieta auzoan izango du, Aretxabaletako Udalaren, Gizabidea Fundazioaren eta Pausokaren arteko hitzarmenari esker. Zapatuan egin zituzten lehenengo egokitze lanak.

Hamahiru urte beteko ditu Pausoka Haur Eskolak datorren ikasturtean. Orain arte Otolara kaleko kuartelean izan du egoitza, baina irailetik aurrera Belorrieta auzoan izango du. Zapatuan hasi ziren egoitza berriko lehenengo egokitze lanak egiten Pausokako langile eta gurasoak.


UDALA, GIZABIDEA, PAUSOKA

Lau lagunek sortu zuten orain dela hamahiru urte Pausoka Haur Eskola, eta tarte horretan Udalak utzitako lokal baten izan du egoitza. Kuartela, ordea, ez dago bate-re ondo, eta, bestalde, Haur Eskolak ez ditu betetzen 1.004 dekretuak eskatzen dituen baldintzak.

Gauzak horrela, eta Aretxabaletako Udalarekin eta Gizabidea Fundazioarekin hitzarmena sinatu ostean, irailetik aurrera egoitza berria izango du Pausoka Haur Eskolak. Gizabidea Fundazioak egin du eraikina eta horretarako lurra Udalak utzi dio, Pausoka Haur Eskolak erabil dezan, betiere. 60 urteren ostean, berriz, egoitza Udalarena izatera pasatuko da.

HIRU SOLAIRUKO EGOITZA

Egoitza berriak orain dela urtebete indarrean jarri zuten 1.004 dekretuak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen ditu: hala nola, gelek gutxienez 30 metro koadro izatea, gela bakoitzak komuna izatea, jolaslekuak 120 metro koadro izatea... Hiru solairu ditu: lehenengoan sukaldea, jangela, psikomotrizitate gela eta 2-3 urteko umeen gelak daude; bigarren solairuan sehasken gela eta 1-2 urtekoen gela; eta hirugarren solairuan irakasle gela eta jolas lekua. Sarreran, berriz, ume-kotxeak gordetzeko gela, idazka-



MIRARI ALTUBE

Pausokako langile eta gurasoak Belorrietako egoitza egokitzen ibili ziren zapatuan.

Gizabideak egin du eraikina eta lurra Udalak utzi dio, Pausokak erabil dezan, betiere

ritza eta jolasleku txikia daude. Egoitza berria egiteko orduan herritarren eskaera ere hartu dute kontuan; izan ere, azken urteotan leku kopurua baino eskaera handiagoa izan dute. Bukatzekotan dagoen ikasturtean 52 ume daude Haur Eskolan. Datorren ikasturteari begira, berriz, 70 ume eman dute izena: 0-1 urte bitarteko gelarako 16k, 1-2 urte bitartekorako 30ek eta 2-3

Aurten 52 ume daude. Datorren ikasturteari begira, berriz, 70 ume eman dute izena

urte bitarteko gelarako 24k. Irailetik aurrera Haur Eskolei dagokien 0-3 dekretua ere indarrean jarri gura du Eusko Jaurlaritzak. Hala ere, aurkako iritzitxuri jaso ditu dekretu horrek eta oraindik ez dute onartu. Pausoka Haur Eskolako hezitzaileen iritziz, dekretuak ez du umeen alde egiten, eta horrek desadostasunak sortu ditu. Ikusi egin behar zer gertatuko den.

LABUR

Zuhaitz Errasti gaztea Audientzia Nazionalera joan zen deklaratzera martitzenean

Zuhaitz Errasti gazte aretxabaletarra Madrilen izan zen martitzenean, uztaileak 9, Teresa del Palacios epailearen aurrean deklaratzeko. Zuhaitz maiatzaren 30ean atxilotu zuen ertzaintzak Urbaltz tabernan kalean pintadak egiten ikusi zutela esanaz. Hamahiru ordu egon zen Bergarako komisarian atxilotuta eta deklaraziorik egin gabe utzi zuten aske. Orain, Audientzia Nazionalen deklaratzera behartu dute eta Teresa del Palacios epailearen aurrean egon ostean martitzenean, berriz bueltan da Aretxabaletan. Segiko kideen esanetan euskal gazteriaren aurkako beste eraso bat izan da, eta EAJ da errudun nagusia. Hori dela eta, martitzenean bertan kale agerraldia egin zuten Batzoki aurrean.

Aretxabaletako Akordeoi Orkestrak kontzertu bikaina eskainiko du zapatuan parrokiari

Aretxabaletako Akordeoi Orkestra 10. urteurreneko ospakizunak egiten ari da. Hori dela eta, zapatuan honetan, uztaileak 13, 20:00etan kontzertu bikaina eskainiko du Aretxabaletako parrokiari. Akordeoi Orkestra ez da bakarrik egongo, ordea, Iñigo Aizpiolea akordeoi jolea eta Edorta Ayastui tronpetak jolea izango ditu lagun.

Uztailearen 20an eta urteurrenari bukaera emateko, Euskal Herriko Gazte Orkestra izango da herriari. Kontzerturako sarrerak Iosu harategian, Taberna berrin eta Arlutzen daude salgai. Bazkideek 5 euro ordaindu beharko dituzte, aurrez erosten dutenek 8 euro eta leihatilan 10 euro.

TXUTXUMUTXUA



Sanferminetako zezenak gurean ere bai!

Argi dago San Fermin jaiak ez dituztela Iruñean bakarrik ospatzen. Zapi gorria lepoan eta egunkaria eskuan, gure herriari ere umeek eta gazteek ederto pasatu dute San Ferminen kontura. Udaleku irekietan dabilzan umeek joan den egubakoitz eguerdian txupinazoa bota zuten, eta arratsaldean entzierroa egin zuten. Bistan dago badakitela zezenen aurrean korrikari egiten, zelan, gainera! Pausoka Haur Eskolako umeek ere aste osoan egin dituzte entzierroak. /M.A.




ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 5
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:
Lyonel Arquero

Dekorazioa:
Soraya Arquero



LURRINDEGIA
OPARI-DENDA

Mitarte, 18 • 943 79 38 59
ARETXABALETA

AMETS
TABERNA

Iparragirre, 4
Tel.: 943 79 01 29
ARETXABALETA

BENGOA
URDAITEGIA

Bertako okelak
eta mortzilak

Durana, 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79

FUTBOLA

Entrenatzaile berriarekin hasi ditu entrenamendu saioak preferenteak

Astelehenean hasi zituzten entrenamendu saioak Bittor Muxika entrenatzailearekin

MIRARI ALTUBE

Opor aste batzuk izan eta gero, UDAko futbol taldeak dagoeneko hasi dira entrenamenduetan. Preferenteko taldea astelehenean hasi zen, eta entrenatzaile berria dute: Bittor Muxika eibartarra. Irailean hasiko den denboraldian jokari berriak ere izango dira.

Irailean ekingo diote futbol denboraldiari, baina dagoeneko hasi dira entrenamenduak egiten UDAko futbol jokariak. Gazteak joan den astean hasi ziren eta gainerakoak oraingo astean, baita preferenteko taldea ere.

BITTOR MUXIKA ETA JOKALARI BERRIAK

Entrenatzaile berriarekin ekingo dio preferenteko taldeak denboraldiari. Bittor Muxika eibartarra da entrenatzailea; lehendik ere ezagutzen du taldea, orain dela zazpi bat urte ere UDAn ibili zen-eta. Mutriku eta Eibar Urko taldeak ere entrenatu ditu.

Entrenatzaileaz gain, jokalaria berriak ere egongo dira preferenteko taldean: Ekaitz Ara-



MIRARI ALTUBE

Bittor Muxika entrenatzailearekin hasi ditu entrenamenduak preferenteko taldeak.

mendi aurrelari eskoriatzarra eta Jon Unamuno atzelari arrasatearra. Eta Realeko gazte taldean dabilen jokalaria bati ere egin diote eskaintza.

Datorren denboraldian beste

berritasun bat ere egongo da: bazkide kuota igotzea, hain zuzen ere. Azken urteetan ez du igoerarik izan, eta aurten Debagoieneko gainerako taldeek dituzten kuotaekin parekatu gura dute.

PIRAGUISMOA

Aurten ere, momentuz behintzat, ezingo da ibili piraguan Urkulu urtegiko uretan

Urtegi galanta daukagu Aretxabaletan, baina beste urtegi batzuetan ez bezala ezin da bainurik hartu ezta piraguan ibili ere. Aretxabaleta eta Bergarako Piraguismo taldeek piraguan ibiltzeko baimena eskatuta daukate baina momentuz behintzat ez dute baiezkorik lortu. Piraguan ibili gura duenak piragua Azatzako Iraban baserritik hartu, eta inguruko beste urtegi batzuetara eroan beharko du. Iraban baserriko giltza, bestalde, Azkena tabernan dago beti moduan.

TXIRRINDULARITZA

Asier Atxa aretxabaletarra hirugarren postuan sartu zen Bira 2002ko etapa baten

Joan zen astean Bira 2002 korritu zuten txirrindulariek Bizkaia aldean. Asier Atxak ere hartu du parte, eta zapatu goizean jokatuta zuten Zamudio-Zamudio etapan hirugarren postuan sartzea lortu zuen. 108 kilometroko ibilbidea egin zuten eta helmugan hiru txirrindulari ibili ziren norgehiagokan. Azkenean, Caja Rural taldeko Mikel Gaztañaga nagusitu zitzaizen Cafés Baqué taldeko Ricardo Serrano eta Olarra-Consultec taldeko Asier Atxa aretxabale-tarrari.

UDAKO KIROL KANPAINA

Hasita dago Kirol Zerbitzuek antolatutako Udako Kirol Kanpainaren bigarren txanda

Eguen honetan, uztaileak 11, hasi da ume eta gaztetxoek Udako Kirol Kanpainaren bigarren txanda. Lehenengo txandan dagoeneko 77 haurrek eman zuten izena, eta bigarrenean ere askok errepikatu egingo dute. Hala ere patinajea, eskalada eta multikirola egiteko talderik ez da sortu ez lehenengo txandan ezta bigarrenean ere.

FOTOKIROLA



Plataformako mendi martxa

Domekan, *Euskal Presoak Euskal Herrira* lelopean, mendi martxa egin zuen Aretxabaletako Plataformak. Eguraldi bikaina lagun, 60 bat herritar animatu ziren Kurtzebarrira joatera. Mendi tontorrean EPEH izara jarri ostean, txorizoa, gazta eta ardoa gura beste izan zuten Elizabarrin, eta giro polita izan zen, txalapartariak eta musika lagun. Lagundu zuten guztiei eskerrak eman nahi dizkie Plataformak.

Lubia
oinetakoak

beherapenak!

Mitarte 14 • 943 79 16 00
ARETXABALETA
Biteri 1 • 943 79 66 53
ARRASATE

Jon Díaz
Harakina

Loramendi, 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

IBARRA
estankoa



PRENTSA ETA
IKASMATERIALA

Egunero zabalik

Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77
ARETXABALETA

Maritxu
drogeria
mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tel.: 943 79 23 53
ARETXABALETA

ERRETRATUZAHARRA

Gerra aurreko neskek, eskola nazionalistan



Beste behin ere eskolako garaiek ekarri ditugu gogora erretratu zaharraren laguntzarekin. Oraingoan, 36ko gerra piztu aurreko herriko eskola nazionalistan ateratako argazki zaharra ikus dezakezue.

Alboan dagoen erretratua 1933. urtean ateratakoa da. Orduan, neskek eta mutilak banandurik ikasten zuten. Alboko argazkian zazpi eta hamar urte bitarteko nesken taldea ageri da. Baina argazkian, ikasleez gain, maistra ere azaltzen da, Doña Matea. Argazkian azaltzen den Consuelo Etxaberen esanetan, maistra ona izan zen Doña Matea: "Bizkaitarra eta oso euskalduna zen maistra, eta harekin euskaraz egiten genuen beti".

Nesken orrazkerak ere atentzioa ematen du. Kopeta-ilea edo bestela albo batera egindako marra dute guztiek. Consueloren esanetan, orduko modarengatik izango zen; garai hartako ile apaintzaileek, Asun eta Gregoria Elkorok, horrelaxe orrazten zituzten, behintzat, neska guztiak.

Lehenengo ilaran, ezkerretik hasita: Karmen Jauregi, Angela Bengoa, Oñatiarra, Doña Matea, Carmen Marzana, eta ezezaguna.

Bigarren ilaran: Pili Agirre, Maritere Atxa, ezezaguna, Crusa Bengoa, Dolores Etxebarria, Encarna Gallastegi, Consuelo Etxabe, Carmen Iturriaga.

Hirugarren ilaran: Mila Marzana,

Nati Amuriza, Poloni Garcia-Etxabe, Consuelo Olabe, Romaretazabala (San Blasekoa), Candida Osinaga, Marilolo Ariño, Máxima Zuazua, Lucía Elortondo, Cristina.

Laugarren ilaran: Ezezaguna, Mila Urreta, Benita Zubizarreta, ezezaguna, ezezaguna, Tomasa Zuazua, Maritxu Iturricastillo,

Begoña Sorotegi, Maritere Antxia.


Eta bosgarren ilaran: Maritxu Gutiérrez, ezezaguna, Isabel Etxeandía, Anita Bengoa, Maritxu Arenaza, ezezaguna, Luisa Bengoa, Juli Elortza, Feli Ugalde, Esther López de Armentia.

Argazkia: Jesus Osinaga

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Industriaren etengabeko bilakaera

Arexabaleta industriaren batera hazi dela esan genezake. 60ko hamarkadan, Copreci izan zen herrian azaltzen den industria eraikin handiena. Orain, berriz, ia berrogei urte pasatu direnean, argi ikusten da industriak gero eta lur gehiago hartu duela herrian. Eta jakina, industria-erkin batera, etxebizitza gehiago, saihesbidea, azpiegiturak... guztia gehitu da.



≈ 1966

Argazki honetan Copreci lantokia egiteko lanak bukatu berri zituzten. Gerora, lantokia handituz joan dira.



2002

Argazkiaren beheko aldean Bainuetxeko industrialdea ikus daiteke. Gune horixe izan da industrialerako bideratu duten azkena.

LEIBAR
arrandegia



Mitarte Kalea, 1
Tel.: 943 77 13 79
Arexabaleta

ANDRA MARI
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
ARETXABALETA
Tel. 943 79 29 26

ZARAIA TABERNA

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan
Tel.: 943 79 88 95

MANTEKA ANAIAK

AZKARATE AROZTEGIA

Telleria, 19 B-0-2 B-0-3. BERGARA
Tel.: 943 76 47 19.
ARETXABALETA Tel.: 943 77 01 24



Zebarri?

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2002ko uztailaren 12a / 88. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarrigoiena.com

Herriko elkarteek eta herritarrek jaien gaineko iritzi ona eman dute orokorrean

AINTZANE GARDOKI

Aurtengo San Pedro jaiak agur esanda, dagoeneko datorren urtekoen zain dago herritar bat baino gehiago. Jaien gaineko balorazioa egin guran, herriko lau elkarterengana jo dugu, elkarte bakoitzak sanpedroen gainean duen iritzia jakin guran.

EGAS, Amuska, Olazar eta Axtroki elkarteen balorazioa jakiteaz gainera, herritarrengana ere jo gura izan dugu eskoriatzarren iritzia jasotzeko.

GIRO POLITA OROKORREAN

Denetarik iritziak izaten dira kalean, nahiz eta gero batek baino gehiagok "ez hori gero *Goienkaria*-n ipini" esan. Baina orokorrean, eskoriatzar gehienek aurtengo jaietan giro polita izan dela diote. Jai programan izan da arrakasta handia izan duten hainbat ekitaldi berri ere: mariachiak eta Joseina Etxeberriaren Disko Festa, besteak beste. Jaiak amaitu berri, dagoeneko herritar bat baino gehiago dago datorren urteko jaiak noiz helduko zain.



JOSEBA GABILONDO EGAS

Orokorrean oso giro ona izan dela ezin da ukatu. Guretako egunik politena, aurtun ere, Euskal Jaia izan da. Baina bestalde, gazteondako gauza gutxi egon da. Hori ikusita, guk gure kontzertuak egin ditugu. Aurtun, gazteko lanekin lanpetuta ibili gara. Datorren urteko programa egiterakoan hantxe izango gara!

"Gazteondako gauza gutxi egon da. Datorren urteko programan ez dugu hutsik egingo"



OLATZ ARRESE Axtroki

Jai politikak izan dira. Berritasunak ere ugari izan dira: mariachiak, ilegalizazioaren kontrako afaria, Disko Festa... arrakasta handiko ekintzak izan dira. Euskal Jaia, beste behin ere, egun bete-betekoa izan da. Hobetzeko, tabernetako musika; euskal musika gehiago jartzeko eskatu arren, muzin egin digute.

"Nahiz eta eskatu, herriko tabernetan nahi baino euskal musika gutxiago entzun da festetan"



PABLO OÑATE Olazar

Jaietako programazioa ona izan da. Erretiratuok ere gure jaialditxoan izan genuen. Herriko lanek, agian, jendea beste batzuetan baino gehiago zatitu dute, baina oso giro ona egon da. Mariachiak jende nagusiaren gustukoak izan dira. Nik neuk, hildakoei errespetuagatik, suak botatzeko lekua aldatuko nuke.

"Herrian egiten ari diren lanek, agian, herritarrak bestetan baino gehiago sakabanatu dituzte"



MAITE ALTUNA Amuska

Jaiak oso ondo joan diren dirarik ez dugu. Plazako lanek ezin dute jendea despitatu samar ibiltzea, baina nahi izan duen eduki du zer entzun eta zer ibili. Parte hartzen duenak giro on egoten dela esaten du, parte hartzen ez duenarendako, berrit beti falta izaten da zerbait. Gure kalean bizi izan ditugu jaiak.

"Jaietan parte hartzen ez duenarendako beti falta izaten da zerbait"

ATREBENTZIAEZPADA/ Zer iruditu zaizkizu jaiak? Ezer igarri duzu faltan?



MERTXE BOLINAGA erretiratua

Oso giro ona egon da. Izugarri gustatu zaizkit mariachiak. Nagusien Danborrada ere oso polita izan zen. Ea datorren urtean erretiratuok animatzen garen batailoi bat egiten.



CONCHI OSA langilea

Ez naiz egon egunero, baina giro ona egon da. Suak ez ditut ikusi eta penaz gelditu naiz, oso onak izaten dira-eta. Dena dela, lehenengo jaiak faltan igartzen ditut, giro hobea zegoen.



BEÑAT HERCE ikaslea

Onena Euskal Jaia izan da, gazteok egunez ibiltzeko moduko egun bakarra izan da-eta. Txosnetan eta gazetxean oso giro ona egon da, baina Udalak oso ordutegi zorrotza ezarri die.



ANA ZUBILLAGA langilea

Umeak edukita, egunez ibili naiz, barraketan, Danborradan, Kukubiltxoren emanaldian... Herri txikia da Eskoriatza, eta, gauza handirik barik, apur bat denetarik egon da.



AMAIA ARANBURUZABALA ikaslea

Aurreko urteotan baino ekintza gutxiago izan dira egunez. Euskal Jaia, betiko moduan, onena! Gazteok gauera arte ez dugu ezer egitekorik. Arratsaldean guretako zerbait jarriko nuke.



TOMÁS RUBIO ROY erretiratua

Jaiak ondo egon dira. Mariachiak bestetan baino baxuago egon da eta hori ere esan izaten da. Egunez ere ekintza ugari izan dira, baina herriko gazteak igartzen ditut. Gure kalean.

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59
BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
RENFE (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

KANPALDIA UME ETA GAZTEENTZAT

Lanbrue elkarteak herriko ume eta gazteendako kanpaldia antolatu du. Kanpaldia datozen 26, 27 eta 28an egingo dute Alabitan. 3 euroren truke, herriko 10 urtetik gorako ume eta gazteek izango dute kanpaldian parte hartzeko aukera. Izena ematea nahi duenak Namastera edo kultura etxera jo beharko du uztailearen 20 aurretik.



Herriko pilotari txapeldunak

Herriko pilotari gazteek lan handia egin dute azkenaldian jokatu dituzten txapelketetan. Horren adibide, alboko erretratuan azaltzen diren pilotariak eta aldean daramatzaten txapelak eta kopak. Joseba Iñurrategi entrenatzailearekin batera Alex Oiartzabal, Xabi Agiriano eta Mikel eta Joseba Zubizarreta ageri dira. Alex Oiartzabal eta Xabi Agiriano Teknikazio mailan Gipuzkoako txapeldunak izan ziren. Txapelketa horren berezitasuna da Euskal Pilota Federazioak aukeratutako pilotariak bakarrik jokatzen dutela. Bestalde, Mikel eta Joseba Zubizarreta, Apotzagako anaiak, Arrasateko San Juan Pilota Txapelketako garaile izan ziren. /A.L.

LABUR

Selektibitatea egin duten Almengo ikasle guztiek gainditu dute azterketa

Arizmendi ikastolako Almen gunean Batxilergoko bigarren ikasturtea egin duten ikasleetatik, %91k gainditu dute ikasturtea. Ikasturtea gainditu zutenek ekainaren 12an, 13an eta 14an selektibitateko frogak egin zuten Eibarren. Azterketa hori egin zuten Almengo ikasle guztiek gainditu zuten selektibitateko azterketa. Aste honetan, berriz, bigarren ahaleginean Batxilergoko azken ikasturtea gainditu duten Almengo zazpi ikasleek selektibitateko azterketa egin dute. Bestalde, Jesus Mari Ganboa izango da aurrerantzean Almen guneako kudeatzailea.

Bertako euskeriaren ikerketa linguistikue egiteko, proposamen bi aurkeztu ditue

Eskoriatzako, Gatzagako eta Aretxabaletako udalek, bertako bertie galtzeko zorixen ikusitue, beka bat atera euen, bertako euskeriaren ikerketa linguistikoko globala egiteko. Hillebetien proposamen bi jaso ditue udalek. Eta oingo astien, bertako euskalkixen aditu dien bost lagunekin osatutako balorazio batzordiek proposamen bixek aztertu ditue; ikerketa linguistikue egiteko ze nolako planifikaziñue egon dan, jarraitu dauen metodologixie, eta beste aztertu ditue. Horrenbestez, hil honen amaiera aldeira, epaimahaixek erabakixie hartu biherko dau.

Calderería
Cantera, S.L.
ALUMINIOAK

Zurgintza alumioa erabilia
Aingerugardakoa ibilbidea z/g
T. 943 71 49 11 F. 943 71 44 21
ESKORIATZA



bedardenda
Tfnoa.: 943 71 43 27
ESKORIATZA

TOKI
ALAI
TABERNA

Karajiloetan
espezializatua
Tel.: 943 71 47 29
ESKORIATZA

AZKOAGA
ESTANKOA

Zure
Zerbitzura



- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki 3
Tel.: 943 71 31 29/ Eskoriatza 20540

NAIRA
Taberna


Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71

ESKUZ
LARRUGINTZA

Askotariko larrugintza lanak
Mandatu eta lan bereziak

Pilar kalea 9 LEINTZ GATZAGA 943 71 41 54

TXUTXUMUTXUA



Batzuk txapela buruan eta beste batzuk zaldi gainean, gatzagar bat baino gehiago ibili da San Pedro jaietan

Duela hamabost egun, eta orrialde honetan bertan, esan genuen gatzagarrek ez daukatela ohitura handirik sanpedroetara joateko, baina aurkitu dugu herritar bat baino gehiago Eskoriatzan festa giroan. Domekan, Umeen Danborradan, gatzagar gazte bi aurkitu genituen: Nerea eta Ibone. Danborra jotzen bata eta zaldi gainean dotore bestea, Eskoriatzako kaleetan barrena ibili ziren herritarren txaloen artean.

Astelehen eguerdian, berriz, goizeko errelebian lan egin ondoren, beste gatzagar bi ere parrandan ikusi genituen, antiojo beltzak jantzita eta txapela burua, zutela. Haien esanetan, lehenago ere, bizikleta zuten gatzagarrek beti joaten ei ziren Eskoriatzara jaietan, eta "bizikleta ezean, herria zaintzen gelditu behar." /A.G.



AHTren kontrako martxa herrian

Herriz Herri Abiadura Handiko Trenik ez! lelopean Gasteiztik irten eta Bilboraino heldu zen bizikleta martxak *Euskal Y-k* hartuko dituen herriak zeharkatu zituen. Joan den astelehenean, Urbinatik hogeit bat ziklista irten ziren, Debagoienean AHTren kontrako mezua zabaltzeko. Landan bainua hartu eta gero, ordubeteko atzerapenarekin izan bazen ere, Gatzagan geldialditxo egin zuten ziklistek. Zain zituzten herritarrei gaiaren gaineko informazioa eman eta, jai giroan, herritarrek eta ziklistek, elkarrekin, herria oinez zeharkatu zuten /A.G.

LABUR

Udalak loreak eta landareak banatuko dizkie herritarrei, balkoiak apaintzeko

Datorren astelehenean, Udalak loreak eta landareak doan banatuko ditu arratsaldeko zazpitan Markole plazan. Eskaintza horrek herriko balkoiak eta leihoak apaintzea du helburu. Gero, Herriko Andra Mari jaietan, 90 euroko saria emango diote herriko balkoirik edo leihorik ederrenari. Epaimahaia herriko elkarteetako kideek osatuko dute: GUREL eta Toki Eder elkarteek, Gatzis gazteen taldeak eta Sorginak taldeak osatuko dute epaimahaia.

Asier Elkorobarrutiak eta Igor Fernández de Arroiabek Hiru Handiak egin zituzten

Asier eta Igor beste 800 lagunekin batera gaueko 12ak puntuan atara ziren Zalduek Hiru Handiak egiteko gogoarekin. "Lehenengo aldiz egin dugu ibilaldi hau Igorrek eta biok; izugarritzko egun polita egin zuen, nahiz eta aurretik nahi beste entrenatu ez oso gustura ibili ginen. Oso lasai hartu genuen ibilaldia" esan digu Asierrek. 22 ordu behar izan zituzten ibilbide osoa egiteko. "Egiteko gai garela jakinda, datorren urterako bai prestatuko gara!"

FAGOR




ELEKTRATRESNA TXIKIKO NEGOZIOA

Aingeruarda ibilbidea, z/g
Tel.: 943 039 100 • 943 71 54 52 (SAT)



~~ARRASATE~~ K.A.

99.95 K.A.



Hona hemen

Merkealdiak

Garibai Etorbidea 2-6 • ARRASATE

SPORTLAND
FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA


Ile apaindegira baino
lehenago heltzen gara.


Ibarreko BERRIAK
gertu-gertutik egunero.

BERRIAK

- Astelehenetik egubakoitzera 14:00etan et 20:00etan
- Errepikapena egunero, 15:30ean eta 21:30ean

Goitb
Goiena Telebista





Alboka
Anna's
Asensio
Iriarte
Pagaldai opariak
Zare
Zubia

BEHERAPENAK